

mutualitateak: kapitalaren morroi gure osasun ereduaz geuk erabaki!

Aurtengo apirilaren 28 honetan, laneko segurtasun eta osasunaren nazioarteko egunean, berriro salatu behar dugu langileriaren lan baldintzak okertu egin direla. Gertaera hau administrazio publikoek erakusten duten utzikeria eta konplizitateari, eta enpresetan dagoen benetako prebentzio faltari gehitzen badiogu, emaitza, laneko gaixotasun eta istripuek gora egiten dutela da, nahiz eta maiz, hauen laneko jatorria ez onartu eta osasun sistema publikora desbideratu.

Okerreko jarduera hauen arduradun zuzenak mutualitateak dira. Enpresarien elkartea hauak, legeak irabazi asmorik gabekotzat jotzen dituenak, Gizarte Segurantzaren diru-publikoaren kudeaketan laguntzen dute, laneko gertakizunetan botere osoa daukate, eta jatorri arrunteko gertakizunei dagokienez, gehiegizkoa eta bereizketarik gabea den kontrol pean jartzen dute langileria.

Egintza hauen bidez, **hauak eragindako kostuak** zein hauen enpresa elkartuenak ahal denik eta gehien **murriztu nahi dituzte**, lan egiteko baldintzetan egon barik lanera joan gaitezen nahi dute. Ohiko bihurtu dira txoke-terapiak, infiltrazioak, garaia baino lehen emandako altak, alta ekonomikoak, haerdunaldian eta edoskitzaroan laneko arriskuak ukatzea eta hauak sistema publikora igortzea, gizartea ordainditzan, etab.

Horixe da lan istripuen eta gaixotasunen azpi-erregistroaren zergatia. Mutualitateek, istripua estali nahian, istripua jasan duten langileei, aldi baterako lanpostu berria eslei diezaietela eskatzen diete enpresei. Laneko gaixotasunei dagokienez, egin diren kalkuluen arabera, **patologia mota hauak eragindako eta mutualitateek ordaindu beharko luketen osasun gastu zuzenen %18a baino gehiago bere gain hartzen du osasun sistema publikoak.** Inongo administrazioek ez du ezer egiten legeari egiten zaion iruzur honen aurrean.

Mutualitateen egungo okerreko jarduerei datozen hilabeteotan eta urteetan etorriko direnak gehitu beharko dizkiegu; etorkizuneko mutualitateen legeari buruzko zirriborroek eta ezintasun iragankorreko errege dekretu batek adierazten dutelako **enpresarien elkartea hauak jarduteko gaitasun handiagoz hornituko dituztela, osasun sistema publikoak eta hauetan ari diren profesionalak** (Osasunbidea eta Osakidetza) eduki eta eskuduntzez hustuz. Egungo egoeran, aurreztearen gezurrezko argudioan eta langileek sistema publikoari iruzurra egiten diotenaren susmoan oinarrituz, **publikoa deskapitalizatu nahi dute eta esparru pribatuari negozioa eman nahi diote**, baita osasunaren oinarrizko gaietan ere.

Mutualitateen eskuduntza berrieik, langileria are gehiago kontrolatu ahal izatea ekarriko dute: gertakizun arruntetan azterketa-medikuak egiteko derrigortasuna; berez, altak emateko aukera; osasun zerbitzu publikoek duten gure historia kliniko osoa eskuragarri izatea; baja baten jatorria arrunta edo lanekoa den erabaki ahal izango dute; alta ekonomikoak; zigorrak hitzordu batera ez joateagatik, bertaratzeko ezinduta egon arren.

Laburbilduz, **egungo ereduak nahiz honi etengabe egiten zaizkion erreformak sistema publikoa desegitera bideratuta daude: osasunaren eredu pribatu eta ekonomizistarantz** abiatu gara, non botere osoa emango baitzaien, berez, enpresarien elkartearik diren mutualitateei. Ez da inolako kontrolik ezarriko; ez da iruzurra jazarriko laneko gaixotasun eta istripuen erregistroan. Hau guztia egiteko, kudeaketa "pribatua" publikoa baino hobea dela diote, baina gizartea alta goziarrengatik, gaixo dauden langileen kaleratzeengatik edo saihes daitezkeen ondorio txarrengatik ordaintzen dituen kostuak ezkutatzen dituzte.

Hau guztia langileria eskubideak galtzen ari den unean gertatzen ari da, lanaldiak handitzen ari direnean, soldatik murritzenean, negoziazio kolektiboa eraisten ari diren honetan,... Hitz baten, oso azkar garatzen ari den prekarietateak babesgabetasuna sortzen du langileen artean dagozkigun eskubideak erreklamatzeko eta baita osasunaren esparruan ere.

LABek, etorkizunean ere, borrokan jarraituko du enpresari-elkartea hauen aurka, **Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua** irmotasunez susta dadila eskatuz, geure prebentzio eta osasun ereduak erabaki ditzagun (**loturrik gabea, unibertsala, parte-hartzalea, publikoa, mutualitateekin loturak izango ez duena, arreta integrala eta osoa eskainiko duena**), non langileriaren osasuna, berez, eskubidea izango baiten, eta ekonomia-eragileek baldintzatuko ez dutena, baizik eta osasun-irizpideek soilik.



APIRILAK 28 lan osasunaren nazioarteko eguna